

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta EAEk politika sozial, etxebizitza eta enpleguko esperientziak partekatuko dituzte

Beste gai batzuen artean, Foru Komunitatean eta EAEn bermatutako errenta-sistemaren kudeaketa aztertu dute

Lunes, 11 de enero de 2016

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparra eta Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Angel Toña gaur goizean bildu dira Nafarroako Jauregian politika sozial, familia, etxebizitza eta immigrazioaren kudeaketako ikuspegiak nahiz esperientziak partekatzeko.

Esperientziak trukatzeko bilera honek, etorkizunean lankidetzan aritzeko itxaropenarekin, iragan irailean Uxue Barkos eta Iñigo Urkullu Lehendakariak izandako bilkuran adierazitako asmoari erantzuten dio, hau da, EAE eta Foru Komunitatearen arteko harremanak sendotu eta zabaltzeko asmoari. Bilera haren ondoren, bi gobernuen arteko etengabeko harreman-bidea hasi zen interes partekatuko alderdietan batez ere lan egiteko, herritarren bizi-kalitatearen zerbitzura auzotasun egokiko harremanetan aurrera egitearekin batera.

Lehen harreman honetan, beste gai batzuen artean, EAE eta Nafarroaren arteko bermatutako errenta-sistema aztertu da esperientziak trukatzeko aldera. Gainera, bi gobernuek interesa dute erakunde bakoitzak errealitate soziala neurtzeko dituzten adierazle-sistema partekatu eta sakontzeko.

Bi gai horietan sakondu ahal izateko, bilkuran honako hauek ere parte hartu dute Nafarroako Gobernuaren aldetik: Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren zuzendari nagusi Patxi Tuñonek eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaile Paz Fernandezek; Eusko Jaurlaritzaren aldetik, berriz, Lanbideko zuzendari nagusi Adolfo Alustiza izan da, bestea beste.

Nafarroa eta EAEn arteko lankidetzan aurrera egiteko helburuarekin, babes sozialeko lankidetzaz-azterketa batzuk hasiko dira.

Bi kontseilariak bilera "probetxuzkoa eta aberasgarria" izan dela



Nafarroako eta EAEko ordezkariak arteko bilera.

esan dute, eta "hain gai garrantzitsuetan, eskubide sozialetan, esaterako, lankidetzan estua izaten jarraitzeko" asmoa adierazi dute; izan ere, gai horietan Euskal Autonomia Erkidegoa nahiz Nafarroako Foru Komunitatea "Europako batez besteko mailatik gora daude".